

Ardaua eztiarekin

Vitae et placita clarorum philosophorum

JOSEBA SARRIONANDIA



FILOSOFO greko hura famatu zen *edertasuna* «zaindariak gabeko erresuma» gisa definitu zuelako.

Filosofu guzien maisu Sokrates zaharrak bere burua zikuta edanaz hil zuela jakinda, bere, maisuaren harritzaile apala, malenkoniaren osinetara erori zen.

«Emaidazue eni ere» eskatzen zuen ohetik toño sokratikoan.

Lagun eta familia artekoak isilik inguruzten zitzaizkion.

«Emaidazue eni ere» errepikatzen zuen desesperatrago.

Inguruko jendeak harriturik, aurpegiak zurbil, ez-painak artega galdetu zion:

«Zer nahi duzu? Eta berak bere gogoeta tristen hondotik ihaligi gabe erantzun zuen:

«Ardaua eztiarekin»

Zezenei bai

TXILLARDEGI



NIK behin ikusi nuen korrida bat, Txofreko plazan. «Festa»(?) hori zer zen jakin behar zuela genuela bururatu zitzaion ene aitari. Eta, 1940 inguruan, hara eramán gintuen

etxeko guztioak.

Eta, ez bat eta ez bi, erabaki zindo hau hartu nuen: «ez diat sekula ikusiko honelako basakeriarrik». Eta honelaxe izan da: 50 urte pasa ondoren, hartan nago. Zezen eder haiek beren indarrean irten, eta berehala, odolohemendik eta odola handik, hil arte... Eta gero, pasodoble harroputzen arteik, ikusle astapitoen orroak heldu: «medio toro... medio toro...». «Fiesta nacional», badakizue... Olé!

«No me gustan los toros, ni en grande ni en pequeño» idatzi zuen behin beste idazle donostiar batek. (Pio Barojak, jakina).

Baina, ni *lotsatu* egiten naute korridéek.

Zezenekin jostatzea txalotzen dut: Nafarroako entzerru famatuak, adibidez. Faltzesko goitik beharokoa iruditzen zait denetan ausartena. Hor arriskua dago, baina ez torturarik.

Zezenak «oso jai euskalduna dela» diote bazuk. Jatorriz baliteke. «Bi Vasconietan» baitago zezenekiko zaletasun: Euzetik Kaskanteraino.

Beti izan al du korridak gaur daukan *tortura*-itxura? Badirudi ezetz. Barojak berak, 1893ko korrida batez mintzo delarik. Zestoon egun hartan zezen «bakar bat» hil zela idatzi du. Eta Landetan eta Autxerrian zezenak ez dira torturatzen eta hiltzen.

Baina *gaurko* korridetan antropozentrismo harropuz eta nazkagarria da ezaugarri nagusia. Kristau jatorriko gailenkeria hau onartezina da erabat. Nondik nora da gizakumea gainerako animalietatik eta guztiz gorago? Nondik nora du gizonak arima hilezkorra eta txinpantzeak ez? Nondik nora dugu guk zezena hil arte irriz eta pasodoblez *torturatzen* eskubidea?

Korridéi ez, beraz, osoki. *Debekatzearen alde* nago guztiz.

Hain zuzen, antropozentrismoaren aurka eta zezenen alde nagoelako.

Navarra hoy

Poliki historian

Nafarroako kasua erabateko sinboloa da. Bi indar nagusiek, Sozialistak eta Union del Pueblo Navarro, ez dute gehiengo osorik bakoitzak bere aldetik agintzeko. (...)

Bi alderdi horiei laguntzeko egoeran daude Eusko Alkartasuna, Herri Batasuna eta Izquierda Unida. Hiru horietako bat bere ere ez da erreza edo atsegina aipatu biezatzeko. (...)

Gurea bezala federala den Estatu batean, federaltasun hori handiena ez izan arren, Nafarroako bezalako fenomenoak gerta daitezke. Eta gure garaietako beste arraznamendu batekin, ideologien krisiekin. Orantxe bertan jar daitezke ados egitarau batean gure herriko sozialistak eta zentro eskuina. Badugu aurrerakinik, Euskal Herrian legegintaldi batean EAJ eta sozialistekin osatutako Gobernu. Benetan gauza bera zen: sozialismoa zentro eskuinean. (...)

Gertatzen dena da Nafarroa hain dela bakarra, eta bakoitzak hain ondo dakielako bere intimitate eta eratan nor den nor, agian pragmatismo politikoa horren konponbideak ezinezkoak direla.

EMILIO ROMERO / 1991-VIII-16

LA VANGUARDIA

Errefuxiatuak Europan

Kontua da Alemanian bakar bakarrik 115.000 errefuxiatu bizi direla egun errefuxiatu kanpamentuetan, eta uste da urte amaieran

HEMEROTEKA



ELPERICH / NAVARRA HOY / 91-VIII-16

egin

Gonzalez eta Hassan Iren matematikak

1974eko agintari kolonial espainiarrek egin eroldako zerrendetan hiritar saharamarokkiar asko sartzeko ahalegina, eta bere ludar Acreoen azken erasoak kanpamendu saharauaren aurka populazioa iuzuarazteko, dira Hassan Iik buruan duen «Marcha Verde II» delakoaren lehen mugimenduak, berarentzat hegoaldeko probintziak direnak aurrerantzean ere kontrolatzeko. (...)

Felipe Gonzalezen Gobernuak autodeterminazio prozesuei dien beldurra badirudi zuzenki proporzionala dela armak eta laguntza mota guztiak baldintzarekin, eta hain zuzen ere, gobernu sozialistak eskuzabaltasunarekin eman dio laguntza azken urteotan Marokkoko bere lagun erregeari. Horregatik Saharan behar bezalako erreferenduma egiteko Espainiaren laguntza posiblea, zatidura

LUIS FOIX / 1991-VIII-16

exponentzial hutsera mugatuko da, eta argi erakusten du zenbateko prepotentziarekin jokatu duen herri baten aurka, zeina bere lurraldetik kanpo bizitzera kondentatu duen eta oraindik ere herri izaera aitortu ez dion.

TXEMA GARCIA / 1991-VIII-16

EL SOL

Desertifikazio industrialia

Espainiak momentu hauetan, munduko deficit komertzial handienetakoa du, Barne Produktu Gordinari dagokionean. Herri horiek menpekotasun teknologiko handia du, munduko ehun handien artean inork ez bezalako, Fortune aldizkari rankingen arabera. Espainiak esportatzaileen zerrendaren lehen postuetan daude General Motors eta Ford bezalako sozietateak eta elikadura bezalako sektore autoktonoak multinazionalen esku geratu dira. Elektronika alorrean, kontsumo nazionalak hamar pezetatik bederatzira, inportazio edo atzeritarrak egindako produktuei dagozkie. Automobileran, ez dago ezkoizle espainiar bat bere ere eta olioak ekoizten duten bost nagusienetik lau atzerriko kapitalari dagozkie. (...)

Etsi etsian liberalak izatea koherentea eta gomendagarria izan daitezke EEBB edo Japonian, horko talde industrialek mundu osoan lehiatzen bait dute.

Baina Espainiak, biloi pezeta batzuetako deficit komertzialarekin, eta 1993ko Merkatu Batertuan sartzeko prozesuan bete betean, ezin du utzi alde batera politika industrialia.

EDITORIALA / 1991-VIII-16

PERTSONAIA

Marijaia

Ay Marijaia zure dantzaldi eta zure irrifarrak mugitzen ditu andre ta gizon gazte heldu eta zaharrak aurtengo hontan ere badatoz jaietako zirriparrak astebetean erakutsirik barnekaldeko indarrak zure umorez poztu itzazu Bilbo eta bilbotarrak

IGOR ELORZA



Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIAN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIAR

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E, Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Araba: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia katea. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 / 75 / Faxa: 59 25 75 11